

216,5 milioi euroko irabazi garbia lortu du 2021ean

Kutxabankek % 20 hobetu du bere emaitza, oinarriko negozioaren bilakaerari esker

- Banka-sarrera errepikariak % 8,2 hazi dira, produktuen, zerbitzuen eta aseguruaren komertzializazio bolumen handiarengatik
- Bezeroen baliabideak % 8 handitu dira eta balantzetik kanpoko baliabideak administraturiko guztien % 37 baino gehiago dira jadanik
- Merkatuko ondareen laugarren kudeatzaile handiena izaten jarraitzen du, 32.000 milioi eurotik gorako negozio-bolumenarekin
- % 7,5 igo du mailegu-inbertsio produktiboa, hipoteka maileguak % 19 hazi baitira, % 9 kontsumorako maileguak eta % 20 enpresa eta erakundeetan
- Ustiapen gastuak 35 milioi eurotan murriztu dira, eta maila gorenean mantendu da zuzkiduretan edo horniduretan, hauetara 279 milioi bideratu ostean
- Berankortasunak alorreko txikienetakoa izaten jarraitzen du, % 1,86, eta zalantzazko aktibo guztien bolumena % 14 jaitsi da, 941 milioi eurotan kokatuz
- Kalitate goreneko kaudimenean alorreko buruan jarraitzen du, % 17,7ko CET 1 phased-in, kudeaketako adierazle nagusietan jarri ziren helburu denak beteta
- Kaudimenean eta kapitalean duen egoera sendoari esker, Fundazio akziodunen artean irabazi garbiaren % 60ko dibidendua banatuko du berriro

2022ko otsailaren 24an. Kutxabank Taldeak 2021. urtea banka-produktu eta zerbitzu nagusietan **errekor guztiak gaindituta** itxi du, eta horrela jarraitu ahal izan du merkatu-kota handitzen eta bere posizionamendua indartzen.

Bilakaera positibo hau ekonomia apurka-apurka bere onera etortzen hasi den ingurunean lortu du, eta Erakundeak urte honetarako sarreretan, gastuen murrizketan eta arriskuen kudeaketan finkatu zituen **helburuak betetzea** lortu du.

Ekitaldiko gako nagusietako bat 'core' negozioaren kemena izan da, beste behin interes tipok negatiboan egoteak eragiten duen presioa orekatzea lortu baitute.

Hain zuzen ere, **banka-sarrera errepikariak % 8,2** hazi dira, **1.165,7 milioi** eurora arte. Honela, zerbitzuek, balantzetik kanpoko baliabideek eta aseguruak eginiko ekarpenak gainditu egin du interes-marjinak emaitzen kontuan duen pisua, gaur egun banka-negozioaren **% 52** baitira.

Sarrerak dibertsifikatzeko duen ahalmena alorraren buruan kokatzearekin batera, Kutxabank Taldeak bere merkatu-kuotak hobetzea lortu du **balantzetik kanpoko baliabideen** hazkundearengatik -inbertsio funtsak, zorro delegatuak eta aurreikuspen produktuak-, bai eta banka-negozioan oinarrikoak diren produktuen kontratazioarengatik ere, batik bat **hipoteka-maileguak, mailegu-pertsonalak eta aseguruak**.

Negozioaren bilakaera onarekin batera, **ustiapen gastuek** murrizten jarraitu dute, guztira **35 milioi** inguru jaitsi baitira.

Gainera, Erakundeak ohikoa duen zuhurtziari eutsi dio **zuzkidurak** osatzerakoan, hauetara **278,7 milioi** bideratuta.

Honen guztiaren emaitza garbia **216,5 milioi** eurokoa izan da 2021. urtean, aurreko ekitaldian lortutakoa baino **% 20,1** handiagoa.

Gregorio Villalabeitia presidenteak ekitaldiari “oso adierazgarria” iritzi dio, “ikuskatzaile desberdinek onetsi duten sendotasuna izan dugu, Kutxabanken arrisku profila, kaudimena eta ahalmen finantzarioa Europako onenen artean kokatu baita berriro. Sendotasun honi esker, Fundazio akziodunen artean % 60 dibidendua banatuko dugu berriro, eta hori albiste bikaina da”.

Javier García Lurueña kontseilari delegatuaren ustez, “ziurgabetasun handiko ingurumarian oso erronka handiak jarri genizkion geure buruari, eta erakundea ia helburu guztiak betetzeko gai izan da. Erabakigarria izan da jarduera komertzialak arlo nagusietan errekor denak gainditu izana, alorrak izan duen bilakaera baino hobe”.

Baliabide Administratuek jarri dute erritmoa

Osasun-krisia hasi zenetik, etengabeko joera izan da baliabide administratuek ‘core’ diru-sarreraren hazkundera markatzen jarraitzea, **balantzetik kanpoko baliabideen portaera apartarekin**.

Bezeroen baliabideak, Kutxabankekin administratuak, **73.778 milioi** eurora iritsi dira 2021aren amaieran, hau da, **% 8**ko aurrerapena aurreko urteko abenduarekin alderatuta.


Ekonomiaren ziurgabetasun-uneetan, merkatuak eta bere bezeroek berretsi egin dute Taldearengan duten konfiantza, eta horri esker, **sektorean** harpidetza garbien bolumen

handiena izan duen **laugarren erakundea** izaten jarraitu du urte osoan, **2.579 milioi** euroko balioarekin. Datu horrek esan nahi du inbertsio-funtsen merkatuan sartu diren **10 eurotik 1** Kutxabanken sartu dela.

Kutxabanken aurrezki-inbertsioaren **kudeaketa delegatuaren** ereduak 15 urte bete dituen ekitaldian, zorro delegatuak **3.200 milioi** euro inguru hazi dira, **% 34**, eta Taldeak kudeatzen dituen funts guztien **% 79** biltzen dute dagoeneko.

Kutxabank Taldeak 21.000 milioi euro baino gehiago ditu gaur egun inbertsio-funtsetan kudeatuta, eta bere merkatu-kuota **% 6,65**eraino igotzen du horrek.

Inbertsio fondoer merkatu-kuotaren bilakaera (%)



Halaber, oso nabarmena izan da banakako aurreikuspen-produktuen bilakaera, 2021ean maximo historikora iritsi baitira. Taldeak kudeatutako **BGAEn** ondarea **6.315 milioi** eurotik gorakoa izan da, 2020ko abenduan baino **% 6** gehiago, eta horrek merkatuan duen lidergoa **% 48,8**raino igo du.

Baskepensiones BGAEn kasuan, bilakaera horren gakoetako bat **saldo berrien sarrera garbien** hazkundera izan da, **181 milioi** eurotik gorakoak izan baitira, 2020an baino **% 42** gehiago.

Kreditu-inbertsiorako urte ona

Kreditu-inbertsio produktiboaren hazkundera egoera ekonomikoaren suspertze mailakatuaren adierazgarri ona izan da, bai txikizkako edo xehekako sarean, bai handizkakoan. Oro har, **46.175 milioi** eurora iritsi dira, eta **% 7,5**eko hazkundera esan nahi du horrek.

Xehekako Bankan, hipoteka-kontratazio handiak % 4 igo ditu azken 12 hilabeteetako kreditu-saldoak. Bestalde, Enpresetarako eta Erakundeetarako Bankaren arloak izandako hazkundeak % 20ko igoera eragin du **Handizkako Bankaren** saldoan.

Kutxabanken xehekako sareak bere merkataritza-jardueraren bilakaera onari eutsi dio oso ingurune lehiakorrean, eta hazkunderik markak hautsi dituzte berriz ere hipoteka-ekoizpen berrian eta kontsumorako maileguetan.

Hipoteka-mailegu berrien errubrika **4.200 milioi** euroraino hazi da, % 18,8. Lehiakortasun handiko ingurunean, Kutxabankek berezko kuota baino askoz ere handiagoa du eremu guztietan, eta **EAEko** hipoteka-mailegu berrien merkatu osoaren % 45era iritsi da, % 15,7ra **Andaluzian** eta % 8,5era **Espainia** osoan.

Kontsumorako mailegu berrien kontratazioa ere oso nabarmena izan da, 495 milioi eurora iritsi baita, hau da, % 9,2 hobetu da 2020aren aldean, **Saltegi Kredituaren** aurrerapen esanguratsuekin, % 28 handitu baita.

Enpresa-negozioak gora egin du

Kutxabanken **handizkako negozioak** bete egin ditu 2021ean bere helburuak inbertsioan, marjina gordinean, merkataritza-jardueran eta zerbitzuengatikiko sarreretan.

Enpresen arloan, **aktibo finkoetako inbertsioa** % 8,5 hazi da, eta 204 milioi eurora iritsi da. Proiektuak lizitatzeko eta industria-ekipamenduak martxan jartzeko **abalen** eskari handiagoa izan da enpresa-jardueraren beste adierazle positiboetako bat, fakturazioa % 23 hazi baita 2020aren aldean. Inbertsio horrek ez du kontabilizatzen pandemiaren ondorioz abalaturako ezohiko finantzaketa.

Enpresek nazioarteko merkataritzan izan duten eragiketa-kopuru handiagoak % 14 igo du egindako dibisa-estalduren bolumena.

Enpresen **aseguru**-eskariak % 2ko hazkundera izan du poliza berrietan, batez ere kreditu-aseguru, aseguru konbinatu eta erantzukizun zibileko aseguruetan.

Kutxabanken **Next Generation** laguntzak emateari lotutako zerbitzu espezifikoek ere harrera ona izan dute. Kontsulten % 80 enpresa-sustapeneko, zientzia eta teknologiako eta energia-eraginkortasuneko proiektuetan ardaztu dira.

Banka Korporatiboak eta **Banka Instituzionalak**, bestalde, **3.150 milioi** euro baino gehiago formalizatu dituzte eragiketa berrietan.

Aseguruek 160 milioi euroko ekarpena egin dute

Aseguru-negozioaren bilakaerak bere ohiko indarrari eutsi dio, eta Kutxabank Seguros merkatuko batez bestekoaren gainetik hazi da dagoen adar ia guztietan, ekoizpen berriaren, bai polizen eta bai primen, aurrerapen handiari esker.

Izan ere, aseguru-jarduerak banku-negoziara jotzeak **125.000 poliza berri** merkaturatzea ekarri du, eta aseguruengatik diru-sarrerak **% 10,4** igo dira.

Kutxabank Seguros-en poliza stocka **925.000tik** gorakoa da, eta jarduera horrek **160,2 milioi** euroko diru-sarrerak ekarri ditu Taldearen emaitzen kontura 2021ean, **% 5,5** gehiago.

Primen hazkundera aseguru-en katalogoko produktu guztietan ikus daiteke, baina bereziki aipagarria da **Etxe, Bizi Arrisku** edo **Ehorzketa** sailetan, **% 13**, **% 11** eta **% 11ko** hazkunderekin, hurrenez hurren, sektorean baino askoz ere hazkunde handiagoekin.

Kontratazio digitala % 26 hazi dira

Urte osoan zehar hazi dira Kutxabanken kanal digitalen sarrerak, hain zuzen ere % 19, guztira **254 milioi** sarrerarekin. Hauetatik % 89 telefono mugikorren bidez egin da.

Online banka eta banka mugikorra produktu eta zerbitzuak kontratatzeke kanal estrategikoak dira jadanik, % 26 azi baitira. Deigarria izan da sinatu diren mailegu hipotekarioek, txartelek, inbertsio fondoek eta planek, edota kontsumorako maileguek hasiera digitala izan dutela.

Kutxabanken banka digitalak duen moldakortasunari esker, zerbitzu honekin bat egin duten erabiltzaileak nabarmen hazi dira. Urte bukaeran bezero guztien **% 57,35** erabiltzaile digitalak ziren, Banka Pertsonalean **% 70**.


2021en Kutxabankek telefono mugikorren aplikazioa erabat berritu du, erabiltzen errazagoa izan zedin, honela erabiltzaile batzuek izan zezaketen bazterkeria digitala eragozteko, batik bat adineko bezeroek.

Berankortasunik txikiena


Kutxabank Taldeak zalantzazko aktiboen saldoa murrizten jarraitu du, **158 milioi** euro guztira 2021ean; beraz, **941 milioi** euro dira orain, duela urtebete baino **% 14** gutxiago.

Berankortasun-ratioa % 2tik behera finkatu da ekitaldian, urtearen amaieran % **1,86**koa izan baita, Kutxabankek historian lortu duen indizerik baxuenetakoa. Hobekuntza horrek esan nahi du **oinarrizko 47 puntu** jaitsi dela 12 hilabeteen, eta datu ona da sektoreko batez bestekoarekin (% **4,3** azaroan) alderatzen bada.

Berankortasun Ratioa (% , abalekin)



Zalantzako aktiboen bilakaera (MM€, abalekin)



2021eko ekitaldian amaitu dira pandemiaren ondorioz partikularrei laguntze aldera, laguntza publiko eta sektorialen esparruan, epeak luzatzeko (luzamenduak) onartu ziren ia neurri guztiak. Zorro horren berankortasuna oso neurritsu mantendu da, bankuaren kreditu-inbertsio osoaren antzeko mailetan, eta horrek erakusten du neurri horiek eraginkorrak izan direla pandemiaren ondoriozko egoera iragankorretan laguntzeko, baita Kutxabank Taldearen arriskuaren kalitate ona ere.

Bilakaera hori ona izan den arren, Kutxabankek arriskuen kudeaketan lan egiten jarraitzen du sar daitezkeen zalantzazkoei eusteko, bai luzamenduen zorroan, bai abalatutako finantzaketan.

Emitzen kontua

Emitzen kontuan, **banka-negozioaren 'core'** sarrerek % **8,2ko** hazkunde esanguratsua izan dute, guztira **1.116 milioi** eurokoa, batik bat **zerbitzuen sarrerek** eta **aseguruen jardueratik eratorritako sarrerek** sustatuta, biak batera % **18,8** hazi baitira.

Interes tipoen bilakaerarengatik oztopatuta jarraitzen du **Interesen Marjinak**, hauek etengabe negatiboan jarraitzen baitute, eta % **-1,3 arinki** behera egin du. Aseguruen negozioaren ekarpena % **10,4** handitu da, guztira **135,3 milioi** eurokoa izan baita Zerbitzuen eta Aseguruen Sarrerek epigrafean, eta 160 milioi eurora arte iristen da Marjina Gordineko sarrera guztiak aintzat hartuta.

Datu hauen arabera, banka negozioaren ‘core’ sarrera gehienak, % **52 baino gehiago**, zerbitzuen eta aseguruaren sarreretatik datoz, interesen marjinak egiten duen ekarpena gaituz. Gainera, **administrazio-gastuen % 100** osatzen dute.

Partaidetuen zorroaren ekarpen errepikariak ohiko sendotasuna izan du, eta **58,4 milioi** eurokoak izan dira dibidenduetatik eratorritako sarrerak eta bazkideen ekarpenak.

Honekin guztiarekin, **Marjina Gordina 1.127 milioi** eurotik gora kokatu da, 2020an baino % **6,4** handiagoa.

Finantza erakundeak eraginkortasuna hobetu eta **ustiapen gastuak murrizteko ahalegin handia** egiten jarraitu du, zuzkidurak sendotu dituen bitartean.

Ustiapen gastuak iazkoak baino **35 milioi** txikiagoak izan dira, honek % **5,4ko** hobekuntza ekarri du. Honela, **Ustiapen Marjina 522 milioi** eurokoa izan da, % **24,4 hobe**a.

Halaber, Taldeak izaten duen zuhurtzia goreneko irizpidearen haritik, mailegu zorroaren eta bestelako aktiboen estaldurarako **saneamenduen** maila egonkor mantendu da, eta atal honetara berriro **278,7 milioi** euro bideratu dira.

Emaitzen fiskalitatea aintzat izanik, Taldearen irabazi trinkoa **216,5 milioi** eurokoa izan da, aurreko urtean baino % **20,1** handiagoa.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2021eko abendua

Milioi eurotan	2021eko abendua	% Δ
Interesen Marjina	559,3	-1,3
Zerbitzuen eta aseguruaren sarrerak	606,4	18,8
Banka negozioaren ‘core’ sarrerak	1.165,7	8,2
Dibidenduak eta baliokidetasunak	58,4	-10,0
ROF	2,3	206,0
Beste Ustiapen Gastuak	-99,4	19,0
Marjina Gordina	1.127,1	6,4
Ustiapen Gastuak	-604,9	-5,4
Ustiapen Marjina	522,1	24,4
Saneamenduak eta narriadurak	-278,7	-19,5
Beste irabazi eta galerak	51,4	-68,2
Zergen aurreko irabazia	294,9	25,6
Zergak eta bestelakoak	-78,4	43,6
Taldearen emaitza	216,5	20,1

* konparatu ahal izateko, gordailuzaintzako negozioa utzi ondorengo sarrerak “Beste irabazi eta galerak” epigrafean sartu dira

Kudeaketa-adierazleak: helburua beteta

Kutxabankek dituen **egoera sendoa eta kudeaketa-eredua** 2021ean berriz ere aitortu dituzte erakunde ikuskatzaileek eta merkatuak.

Erakunde Esanguratsuak Berrikusi eta Ebaluatzeko Gainbegiratze Prozesuaren (SREP) arabera, eta hori Europako Banku Zentralak egin du, Europa osoan **arrisku-profilik onena** duen bankuetako bat izan da Taldea, aurten ere. Azterketak % 1,20ko eskakizuna esleitu dio Kutxabanki, azken lau urteetako berbera eta Europako batez bestekoa (% 2,3) baino hobea.

Ebazpen Batzorde Bakarrak egindako azterketaren arabera, Espainiako eta Europako finantza-sistemako funts propioen eta pasibo onargarrien (**MREL**) **eskakizun txikienetako bat** ere badu. 500 milioiko bonu berdeen jaulkipenarekin Kutxabankek beteta du 2024rako ezarritako MREL ratioa.

Abenduaren amaieran, **Taldearen kaudimen-koefiziente osoa eta Core Tier I ratioa % 17,68**an kokatu da. Bestalde, Taldearen palanka-efektuaren indizea Estatuko lehena izan da, eta % 8,6an kokatu da, sektoreko batez bestekoaren oso gainetik.

Ustiapen-gastuen hobekuntzak eragin positiboa izan du **ex RoF eraginkortasun errepikariko** ratioaren aurrerapenean, eta ekitaldiaren amaieran nabarmentzekoa den % **53,8**koa izan da.

Ratio horien arabera, Kutxabank Espainiako finantza-sistemako **erakunderik kaudimendunena** izan da zazpigarren urtez jarraian.

ROTE % 4ra iritsi da eta **% 6,1era ROOCR**, bere arrisku profilaren arabeko kapitalaren ganean bankuari eska dakioken errentagarritasuna neurtzen duena.

Kaudimenean eta kapitalean duen egoera sendoari esker, Kutxabankek finantza-sistema osoan bataz besteko **dibidendurik garaiena banatu dezake akziodunen** artean. 2021 ekitaldiari dagokionean **irabazi garbiaren % 60** izango da berrito, guztira **129,9 milioi** euro, emaitzak banatzeko ahalmena baitu bete beharreko kaudimen baldintzak arriskuan ipini gabe. Azken hamarkadan, Kutxabankek **1.000 milioi euro baino gehiago** banatu ditu akziodun dituen Banka Fundazioen artean.

Adierazle nagusiak	2021
Berankortasun ratioa	% 1,86
ROTE	% 4,0
ROOCR	% 6,1
ROA	% 0,3
Core Tier I (Phased in)	% 17,7
Core Tier I (Fully Loaded)	% 17,3
Kapital Osoa	% 17,7
Palankatze ratioa	% 8,6
Zalantzazko aktiboen estaldura ratioa (zuhurtziazko zuzkidurak tarteko)	% 94,8
Ex RoF eraginkortasun errepikaria	% 53,8

ESG gaitan urte erabakigarria

Urte erabakigarria izan da 2021 banka-alorrarentzat jasangarritasunari dagokionez, irizpide hau bere egitura operatiboan bateratzea aldaketa estrategikoa izan baita, ekonomiaren eraldaketa sakona sustatzeko asmoarekin.

Bankuaren **barne taxonomia** sortzea lehen urratsa izan da, eta jasangarritasun irizpideak arriskuen politikan eta maileguen klasifikazioan bateratu dira. Berezko barne-taxonomia zehaztu izana 2022. urtean Europako Banku Zentralak egingo duen klimaren estres frogaren aurreko urratsa ere izan da.

Ekonomia berderantz **2.760 milioi** euro bideratu eta gero, aurreko urtean baino % **60** gehiago, beste behin agerian gelditu da finantza Taldea berezkoak dituen lurraldeetan ekonomia jasangarriarentzat eragile nagusietakoa dela.

Finantzazio zuzenaz gain, Kutxabankek **bere lehen bono berdea** jaulki du, **500 milioi euroko** balioarekin. Jaulkipenaren jomuga estrategikoa ingurugiroan eragin positiboa duten egitasmoetara likidezia bideratzea da.